

# ataria

2021-06-04 • 1.430. zenbakia  
107.6 fm • [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

## **Elena Cajaraville, bitxiak eskultura txikiak**



# AURKIBIDEA

**Iritzia** Ura Iturralde **3**

**Elkarrizketa** Eneko Karrera:  
«Nekazariok kudeatzen dugu  
herrialdearen %80a» **4-7**

**Errezeta** Aintzane Artola **8**

**Asteko Gaia** Elena Cajaraville  
artistaren ibilbide hausnartua **10-17**

**Iritzia** Ion Mintegiaga 'Minde' **18**

**Iritzia** Olatz Peñagarikano **19**

**Bertsoa** Amaia Agirre **21**

**Agenda** **22-23**

**Zazpigarren Ilara** Asier Oruesagasti  
eta Garazi Urkolarekin **24-29**



10-17



24-29



21



**Azaleko irudia**  
Jon Miranda

# ataria

**URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€**

**bai** ezbitze eta lana eskaraz

**3** **ikam**

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95  
**KOORDINATZAILEA:** Rebeke Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46  
**WEBGUNEA:** ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM  
**PUBLIZITATEA:** 661 678 818 • publi@ataria.eus

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:**



Tolosaldeko gizarte eragileak

**TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# Sionista bat bidaia-lagun



URA ITURRALDE  
ARGAZKILARIA

**T**ristura baino gehiago, nazka ematen dit gaur egun Palestinak eta bereziki Gazak bizi duen egoera ikusteak. Orain dela egun batzuk izan nuen aukera Nablus hirian, Zisjordanian, bizi den nire lagun Naserekin hitz egiteko. Hark esanda dakit, istiluak herri guztietara zabaldu direla eta honi pandemia gehitzen badiogu, tamalgarria dela bizitzen ari direna. Nahiz eta su-etena adostu duten, berak ez du inongo federik. Gatazkak hor jarraituko du Israelek bere jarrera kolonizatzailea aldatzen ez duen bitartean. Baina zerk bultzatzen die horretara? Zergatik sentitzen dute Palestina beraien lurra dela?

Orain dela urte batzuk Thailandiatik Laoserako bidaia batean ezagutu nuen mutil gazte batek erantzun zituen nik buruan nituen galdera guztiak. Itsasontzi txiki batean gindoazen ibaia zeharkatzen hogeita hamar bat lagun, hizketan, elkar ezagutuz. Alboan nuenak bere burua aurkeztu zuen orduan, Omer zuen ize-na eta Tel Aviv-ekoa zela esan zidan, Israelen derrigorrezkoa den hiru urteko soldaduska amaitu ondoren, Asiatik urtebeteko bidaia gauzatzen ari zela ere zehaztuz. Ibilbide luzea genuen aurretik eta azkenik lagunak egin ginen. Ikusirik konfiantzan ari ginela, buruan bueltaka neramakien galdera bota nion, alde aurretik asko pentsatu gabe: «Omer, eta zer iritzi duzu Israel eta Palestinaren arteko gatazkari buruz?» -Hobe isilik geratu banintz, erantzuna ez bainuen espero-.

«Geurea dena defendatzen ari gara besterik ez. Jundu tradizioak dio, gaur egun Israel kokatzen den eremua, Jainkoak, Abrahami eta bere ondorengoei agindu zien lurra dela. Jainkoak aukeratutako herria gara, hori da zuek ulertzen ez duzuen. Telebistan ikusten dituzuen irudiak manipulazio hutsa dira, gu soilik terroristen aurka borrokatzen dugu, ez ditugu

haurrak eta emakumeak hiltzen komunikabideetan esaten den bezala, argi utzi nahi dut erasoengandik babesten ari garela soilik. Ez dizuete historia ongi erakutsi, guk ordea prestakuntza ezin hobea dugu, txikitatik erakusten zaigu eskolan judutarrek jasan behar izan genuen guztia, bigarren gerrate mundialetik hasita, gaur egun arte. Pentsa, Holokaustoa, zer esaten didazu honi buruz?».

Zaplazteko bat emateko gogoa besterik ez nuen momentu hartan, lasai, eztabaidan, aztoratu gabe jarraitzea erabaki nuen.

**Nahiz eta su-etena adostu duten, berak ez du inongo federik. Gatazkak hor jarraituko du Israelek bere jarrera kolonizatzailea aldatzen ez duen bitartean.**

«Omer, iruditzen zait zuek berdina egiten ari zaretela Palestinarrekin baina pixkanaka, nazioarteko komunitateak beste alde batera begiratzeko aukera izan dezan».

Orduak eta orduak igaro ondoren jada jakingo duzue sekula ez ginela adostasun batera iritsi. Luang Prabang, gure helmugara ailegatu ginenean elkarrekin afaltzeko gonbita ere bota nion eta berak onartu. Benetan bere ikuspuntua zertxobait ulertzeko ahalegina egin nuela, baina ez nuen lortu. Ez nion esaten zidanari inongo zentzurik harrapatzen.

Handik urte batzuetara Palestinara bidaiatzeko aukera izan nuen eta iritsi bezain laster gogoratu nuen Omerrek eta nik elkarrekin igaro genuen egun hura. Palestinarrekin egunero gainditu behar dituzten oztupoak ikusita, orain bai, lasai esan dezaket nik arrazoi nuela.



# «Oso urte gutxitan hona izugarrizko desastrea etorriko da»

**ENEKO KARRERA ARANBURU**  
BASERRITARRA

## **Eneritz Maiz Etxarri**

Amezketakako Lizeaga baserrian jaio zen Eneko Karrera Aranburu. Umetatik tokatu zitzaion baserrian aritzea, eta txiki-txikitatik izan zuen garbi baserritik bizi nahi zuela. Hamahiru urterekin eskola utzi eta esnetarako behiekin hasi zen etxean lanean. Aitari ikasita, lurrari lotutako nekazaritza lantzen du. Gipuzkoako esne sektorearen argazki beltza atera du: 40 urtetan, 4.000 baserritan esnea ateratzetik, egun, 150 bat baserritan baino ez da ekoizten esnea.

## **Gazte garaian erraza egin zitzaizun baserriko bideari eustea?**

Oso erraza egin zitzaidan. Eskolara joateari utzi nion nik nahi nuelako, eta baserrian jarraitu, nahi nuelako. Eta baserrian hasi nintzen ikasten, eta baserrian sekula ez da bukatzen ikasten.

## **Nola gogoratzen dituzu lehen urte haiek?**

Nik eskola utzi eta segituan tokatu zen ganadu gehiago jartzeko ukuilu berri bat egin beharra. Ukuilu berriak zekartzan aldaketekin, ilusio horrekin, ganadu gehiago jarri eta esne gehiago. Hori zen gure ilusioa. Garai hartan ere momentu zailak tokatu egiten ziren. Pentsuaren prezioa zela, esnearen prezio baxua, eta orduan ere arazoak izaten ziren. Baina esango nuke, ekoiztuz gero, gaur egun baino arazo gutxiago zegoela saltzeko; marjinak nahiz eta baxuak izan, gaur egunean baino altuagoak ziren.

## **Asko aldatu da zure baserria?**

Ez nuke esango asko aldatu denik. Lana egiteko era batzuk aldatu dira. Etxean lehen familia gehiago izaten zen. Gaur egun familiak txikiagoak izatearekin,

## ELKARRIZKETA

jende gutxiago gara. Oraindik umeek ere adin gaztea dute, eta gu ibiltzen ginen moduan laguntzen ibiltzen diren arren, langile pare bat dauzkat. Alde horretatik aldatu da. Ganadu aldetik, bolumen aldetik bai, bestela ez da horrenbeste aldatu. Gehiago aldatu da eskakizun aldetik eta burokrasia aldetik. Gaur egun dugun zorroztasunik ez zen. Askotan pentsatzen dut, edozein enpresa handitan eta gu baino askoz ere fakturazio handiagoa eta mozkin gehiago dituztenetan baino paper gehiago ibili behar izaten ditugula, hemen behi batzuekin ibiltzeagatik bakarrik.

### **Nolakoa da zure egunerokoa?**

05:45ak aldera jotzen du iratzargailuak. Norberak bere egunerokotasuna antolatu behar izaten du. Beti izan naiz goiz jaikitzearen aldekoa; goizean bere garaian hasi, eta iluntzean bere garaian lanak uzteko. Gero, askotan ilundu eta lanean jarraitu behar izaten badugu ere. Behiak jetzi, janak eman, instalazioak garbitu,... Emaztea eta geratzen dira txekorren lanekin, eta ni kanpo lanerako preparatzen naiz. Lur asko erabiltzen dugu, eta kanpo lanean ere ordu asko dedikatu behar izaten ditugu. Emazteak eta ere, gero arratsalde aldera kanpo lanera joan behar izaten dute.

### **Urte sasoiak asko baldintzatuko du zuen lana.**

Asko baldintzatzen du. Lur asko erabiltzeak, garai bakoitzean lan ezberdinak egin behar dituzula suposatzen du. Udaberri garaian lan gehiena kanpoan egin behar izaten dugu. Azkenean, urte guztirako elikagaiak produzitzen hasten gara. Ari gara belarretan eta bolak egiten. Belar asko egin behar izaten da urte guztia pasa ahal izateko. Artaberdea ere etxean ekoizten dugu, zati bat behintzat. Guzti hori ekoizteko lan asko egin behar da. Belarrak moztu, prestatu, bolak egin, ongarritu... Denboraldia asko luzatzen da.

Lehendik hor bada aldaketa bat. Lehen berandua-go hasi eta lehenago bukatzen zen, belarrak ondu

egiten zirelako, eta agian ganadua ere larrean gehiago ibiltzen zelako. Orain udaberrian garaiz hasten gara, eta udazkenean berandu bukatzen dugu. Denboraldia luzatu da, nahiz eta udaberri garaia izaten den kolperik handienekoa. Lan asko eta ordu asko, eta ia esateak ere lotsa ematen du, nahiz eta errealitatea den. Goizean seitan hasten gara eta edozein garaitan gaueko hamabietan hor gabiltza, ogitarteko bat edo beste janda. Egun horietan bai egiten da gogorra, eta era berean, eguraldiaren menpekotasuna dugu.

### **Zeruari asko begiratzen diozu?**

Asko begiratzen diogu, baina gero eta gutxiago esango nuke. Gu ere jarrita gaude patrikan erabiltzen dugun gailuari begira. Lehen ohitura gora begiratzea zen, baina orain goizean jaiki orduko begiratzen diogu mugikorrari. Alde horretatik orain erraztasunak baditugu lan-golpeak egiteko. Lana antolatzeo asko laguntzen digu. Menpekotasun handia dugu eguraldiarekin, eta izugarri baldintzatzen du. Jendeak ez du imajinatu ere egiten gu zenbateraino gauden eguraldiaren menpe. Garaiazen arabera zein eguraldi egiten duen, baserritarraren errentagarritasunean izugarritzko eragina du.

### **Zer ematen dizu baserriak?**

Baserria nire bizitzaren parte da. Zati handi bat. Hemen jaio nintzen eta hemen bizi naiz, eta askotan pentsatzen dut baserriarentzat bizi garela, nahiz eta ez den horrela. Gurasoek hemendik atera zuten bizi-modua, eta emaztearen eta nire ogibidea da. Dena da, tandem baten modukoa da.

### **Inoiz burutik pasa zaizu dena uztea?**

Ez. Hau uztearen aurretik, bizimodua ateratzeko ahalegin asko egingo nituzke baserria eta bere ingurua utzi gabe. Momentu gogor asko pasatu ditugu, eta gaur egun ere pasatzen ari gara. Momentu asko-

## IRAGARKI LABURRAK

**LAN ESKAINTZA. Zerbitzaria.** Tolosako Casa Julian jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Interesatuak bidali zuen curriculum **lan eskaintza** erreferentziarekin helbide honetara: [casajulian1951@gmail.com](mailto:casajulian1951@gmail.com).

Zure iragarki laburra argitaratzeko Deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragaki guztiak [iragarkilaburrak.eus](http://iragarkilaburrak.eus)-en.

tan geure buruari jornala kenduta, eta momentu horietako bat orain bertan bizitzen ari garela esango nuke.

### **Zein da esnetarako behien egungo egoera?**

Asko okertu da. Lehen ere egokitzen ziren urte ho-beak edo txarragoak, baina ganaduekin aberastutako baserritarrik ez duzu aurkituko. Esnearen prezioa baxua izanagatik, duela sei-zazpi urte jaitsi egin zen eta azkenengo urte hauetan hor mantentzen da. Kostuak izugarri igo dira, eta egoera momentu honetan oso-oso larria da. Batez ere, udazkenaz geroztik, pentsuaren prezioak izugarri igo dira. Esnearen prezioa oso-oso baxua da, eta beste produkzio kostuak asko igo dira. Ganaduari 365 egunetan jaten eman behar zaio, jetzi,... ezin duzu deskonektatu, eta momentu honetan esnearen sektorea oso egoera larrian dago.

### **Igo beharrean jaitsita dago prezioa?**

Bai eta igotzeko itxaropen handirik ez dago. Banatzaileek esnea gantxo moduan erabiltzen dute bezeroak erakartzeko, eta esnea balioa galdutako lehengai bat dela esango nuke distribuzioari begira. Kalkulua atzeraka egiten dute, eta geratzen diren hondarrak izaten dira baserritarrentzako, eta momentu honetan oso-oso baxua da.

### **Eguneroko soldata ateratzea ez da erraza orduan?**

Azken urte hauetan, baserritarrok biziraun ahal izateko, geure buruari jornala kenduz ari gara. Eta ez dut edukiko lotsarik hori esateko. Hori horrela da.

### **Nolako esperientzia izan zen Gipuzkoako EHNE sindikatuko lehendakaria izatea?**

Esperientzia moduan oso ona. Izugarri ikasten duzu. Baserri mundutik ez duzu deskonektatzen, ez da beste sindikatuen lan dinamika. Gure denbora libreari edo loari kentzen genion denbora. Alde batetik gogorra zen ordu asko eskaini behar zenizkiolako, baina beste aldetik oso ona. Lanerako lantalde on bat eduki nuen. Baserritar talde on bat ginen zuzendaritzan, eta harreman oso ona eduki genuen, eta gaur egunean oraindik ere mantentzen dugu. Lan asko egin genuen, eta saiatu gabe ez ginen geratu.

### **Bazterrean zaudetela uste duzu?**

Ez dakit bazterrean gauden. Ia ez dakidana da bazte-



rrean ba ote gauden ere. Hori horrela esatea oso gogorra da. Nire ofizioaz ari naiz, eta derrigorrean, aurrera begira ere behar delako, eta bizi dugun egoera honetan oraindik eta gehiago. Gizartea lo dago. Gizartea ez da konturatzen. Pandemia egoera honekin, jendea ez dakit nora begira dagoen. Gaixotasun honen garbi utzi du gauza batzuk bai edo bai, ezinbestekoak direla. Eta horietako bat da janaria. Orain musukoak eta eskularruak dira nahitaezkoak, baina egiteari utzi eta Txinatik ekartzen ziren merkeago zirelako, eta gabe geratu ginen. Eraman egoera hori janarietara. Honelako egoera larri baten aurrean, jendearen joera janaria erosten hastea da. Bada imajinatu ez dagoela. Ez dagoela hori ekoizten duen baserritarrik, eta erosi behar duzula ez dakit nondik eta jartzen dizuten prezioan. Eta ez dakizu ez nola ekoizti den eta ezta nola erabilia izan den ere. Jendeak egunero, eta egunean behin baino gehiagotan ahora eramane behar dituen elikagaiekin honela ibili liteke jolasean? Jan gabe egon behar du jendeak? Jendea kontziente da gertatzen ari den guzti honekin? Janaria asko eta asko kanpotik datorrela?

**Ez du horretan pentsatzen jendeak?**

Itsasontzi bat ez atzera eta ez aurrera geratu dela eta mundu guztia aztoratuta. Zergatik? Kanpokoaz dependitzen dugulako izugarri. Baina janariaz ere kanpokoaz dependitu behar da hemen produzitzea edukita? Eta guk janaria bakarrik ez dugu produzitzen. Herrialdearen %80a eta herri txiki hauetan gehiago, guk gestionatzen dugu. Nekazariok kudeatzen dugu. Lehen sektorea, belardiak, basoak, soroak,... guk kudeatzen ditugu eta administrazioak ez dauka kapazitateirik. Administrazioak ez du dirurik hori kudeatzeko guk kudeatzen ez badugu. Hori guztia, momentu honetan airean dago, eta momentu honetan ez baldin bazaio sektoreari ematen behar duen garrantzia, guztia pikutara joateko arriskuan dago.

Errealitate honekin jendea ez baldin bada konturatzen, oso urte gutxitan hona izugarriko desastrea etorriko da; eta urteetan bueltarik ematerik ez da egongo. Ezagutza hori galtzen erraza da, baina nola landu behar den eta nola lan egin behar den ez baita eskolan erakusten. Hori bertan ikasten da, egunerokotasunean. Gizarteak eta administrazioak buelta bat ematen ez baldin badute, hemen egoera oso-oso txarra etorriko da.

«Gizartea lo dago. [...] Egunean behin baino gehiagotan ahora eraman behar ditugun elikagaiekin honela ibili liteke jolasen? Jan gabe egon behar du jendeak?»

**Instituzioek zerbait egiten dutela uste duzu?**

Argazkian ateratzeko balio baldin badie bai. Hortik aurrera kontatzen hastekoa ere ez da. Zertaz hitzetan ari garen balekitez, administrazioek izugarriko lana egin beharko lukete. Elikagaiez ari gara. Oraindik dendan ez dira falta. Hor falta ikusi bitarte, oraindik oso arinetik dabilta. Hasi udaletxeetatik, eta behetik gora administrazio guztiak. Udaletxeek askotan esaten dute ezin dutela ezer handirik egin, baina kiroldegia, frontoiak eta gimnasioak, eta nik ez dut horien kontra ezer, baina udaletxe txikienetik hasi eta denek dituzte. Baina adibidea jarriko dut: Tolosan hiltegi bat dago.

**Zer gertatzen da?**

Berrogeitik gora udalek osatzen dute mankomunitatea, eta eztabaida dago hori mantentzea asko kostatzen dela. Bertako haragia

hor hiltzen da, eta bertako harakinetara banatzen da. Kate baten pieza giltzarri den hiltegi bat, hainbeste udaletxek kudeatzen dutena, eta indartu eta aurrera atera beharko luketena, gaur, oraindik, gehiagoko bultzadarik eman gabe egotea. Itxiko da, ez da itxiko. Udaletxe horiek horri heltzeko seriotasun gehiagorik ez daukate? Sektoreak gehiagorako laguntasunik ez izatea, hori lotsagarria da.



**hilberriak · urteurrenak · eskertzak**

**Txikia: 110€ · Atarikideentzat: 55€**  
**Handia: 160€ · Atarikideentzat: 80€**  
**Eskertza: 60€ · Atarikideentzat: 30€**

**Eskelak · ataria@ataria.eus · Tel: 943 65 56 95**  
**Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.**  
**Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.**

**XXIII. URTEURRENA**



**Ina Zeberio**  
 (1998ko ekainaren 5ean eraila)

*Hogeita hiru urte ta gero  
 Hemen gaude berririo  
 Ina gure artean zaude  
 Gauero ta egunero.*

*Maite zaitugu.*  
**Etxekoak**

Ekainak 5 larunbata, 12:00etan, Gernikan eraildako lekuan.  
 Ekainak 6 igandea, 13:00etan, Lizartzako monolitoaren aurrean.

**LIZARTZA, 2021ko ekainaren 4ean.**

# Oilasko hegatsak teriyaki saltsan



**AINZANE  
ARTOLA**



**G**aurkoan Asia aldera joango gara. Saltsa hau Japoniatik dator eta teriyaki izenez ezagutzen da, produktuari glasatu itxura bat ematen diolako.

Teriyaki saltsa seguruenan gehien bat oilaskoarekin ikusi izan dugu, baina barazkiekin ere oso goxoa gelditzen da.

Gaurko errezeta prestatzeko osagaiak normalean baino zailagoak izango dira. Denda berezietara jo beharko dugu, Asiako janaria saltzen duten denda batera jo beharko dugu sakea eta mirina erostera. Alkohol hauek topatzeko arazorik baldin badugu, arroza-ozpina ere erabili dezakegu edari horien ordez.

Egia esan, zapore fuerte hauetara ez gaude ohituegi; gaziaren eta gozoaren arteko oso nahasketa fuer-

tea da. Baina behin ohituz gero, janari guztiei bota nahi izango diegu!

Saltsarekin hasiko gara. Horretarako, zartagin batean alkoholdun edariak botako ditugu, alkohola bera lurruntzen joateko, sutan. Sakea eta mirinari ondoren, soja saltsa gehituko diogu. Azkenik, azukrea eta jengibre hautsa gehituko ditugu -koilarakada erdi bat, ez gehiegi-. Ondo-ondo nahastuko dugu, azukrea ondo desegin arte. Azkenik, 30 minutuz su baxuan izango dugu. Honela, gure saltsa likido hori gutxika loditzen joango da. Azkenik, jarabe lodi baten testura hartuko duelarik.

Bitartean, gure hegatsak prestatuko ditugu. Hegatsak garbitu eta zatitu ondoren, frijituko ditugu. Frijitzeko azken momentuan gehituko diegu gure teriyaki saltsa. Oilasko hegatsak ez diegu ez olio, ez gatzik botako; izan ere, soja saltsak gatz nahikoa izango du.

Behin oilasko hegatsak gorrituta ditugunean, eta saltsa lodituta dugunean, saltsa koilarakada batzuk botako diegu. Azken batean, gure oilasko hegalak teriyaki saltsaz beteta geratu beharko dira. Saltsa pegatu egingo da eta horrek emango dio glasatu itxura gure oilaskoari.

Zerbitzatzeko momentuan sesamo hazi batzuk bota ahal dizkiogu gainetik. Arrozarekin lagunduta plater bikaina lortu dezakegu.

## OSAGAIK

### SAL TSA

- Sakea (arrozarekin egindako alkohola, 50 ml).
- Mirin (150 ml).
- Soja salta (150 ml).
- Azukrea (50 gr).
- Jengibre hautsa.
- Sesamo haziak.

### HARAGIA

- 8 oilasko hegats.



# Malaga, non hobeto?



## **Kaixo! Ea oraingoan... nora animatu gintezke?**

Ba oraingo honetan, Malagara (Andaluzia) joatea bururatu zait, asko gustatzen zaidan hiri bat da, eta egiteko asko eskaintzen duena gainera.

## **Esan ba, nola, noiz eta zer egin genezake bertan?**

Ba hara joateko Bilbotik ia egunero hegaldi zuzenak daude, eguntxo batzuk bertan igarotzeko aukera ona da, horrenbestez.

Azken urte hauetan eraldaketa nabarmena jaso duen hiriburua da. Konbinaketa ugari ditu: eraikuntza garaikideak, Alde Zaharreko harrizko kale eta inguruak, erromatar garaiko antzokia eta hondartzaz gozatzeko aukera eskaintzen duen hiria da Malaga. Hor-taz, plan konbinaketa bat egiteko asmoz bazabiltza, Malaga primerako aukera da.

Zentroan bertan gera gintezke eguntxo batzuk igarotzen. Handik oinez leku gehienetara joateko aukera dago; Merced izeneko plaza abiapuntu bezala hartuta, Granada kalera jaitsiz gero, ohiko kafetegi, jatetxe eta denda dezente topa ditzakezu. Inguru honetatik gertu El Pimpi izeneko upeltegi ospetsua ere badago, hara joatea nahitaezkoa da, bai ardo-goxo bat hartzeko baita mokadutxo bat hartzeko ere. Izan ere, handik pasa diren ospe handiko pertsonaien argazkiak behatzea bezalakorik ez dago.

## **Eta eguzki pixka bat hartu eta atsedeen premia baldin badugu?**

Ba handik ez oso urrun, Merced plazatik beherantz, tunel bat igaro eta Malagako Alkazabaren azpitik pasako gara, erromatarren antzokia alde batean utziz eta katedrala bestaldean geratuko da; Malageta ize-neko auzora iritsiko gara, eta han hondartza daukagu, baita zezen plaza ospetsua ere, erdi-erdian.

Hango hondartza gainera ez da hain turistikoa eta bertako jendea izaten da batik bat, oso ondo dago.

Iluntzean atsedeen hartzera joan baino lehen berriz ere zentro aldean, ohiko xarmaz beteriko lokal mordoa dago, baita hainbat terrazatxo ere, bertako jan tipikoak eskaintzen dute: arraintxo frijituak (espetoak deiturikoak), Kamperotxoak edo baratxuri zuri izeneko zopa modukoak. Katedralaren inguruan teteria batzuk ere badaude, arabiar estilokoak eta bertan arratsalde-pasa lasai bat igarotzeko oso gomendagarriak dira.

## **Deskantsatu dugu eta energiaz josirik gaudenez, nora joango gara azkenik?**

Ba Malaga hiriburutik gertu, Caminito del Rey bisitaztea gomendagarria da oso, egun osorako; ibilbide oso polita da, naturaz eta inguruaz gozatzeko.

Eta Malaga bertatik irten gabe, Picasso eta Thyssen museoak bisitatu genitzake, edota antzezlanen bat ikustera joan, orain oso modan dagoen Soho auzoko antzokian, adibidez.

Egun gehiago ez ditugunez, inguruko herriak beste baterako utzi beharko ditugu, ados?



**VERONICA BALDA, ENARA ETXEBERRIA  
MYRIAM GURRUTXAGA**

# «Bitxiak jantzi egiten zaitu eta agerrarazten zaitu zuk mundura azaldu nahi duzun bezala»

**ELENA CAJARAVILLE ORDOÑANA**  
BITXIGILEA

**Jon Miranda**

**P**resarik gabe, behar bezainbesteko denbora hartuta erantzun die Elena Caraville Ordoñanak (Donostia, 1965) TOLOSALDEKO ATARIA-ren galderei. Ur Mararako estudioko ateak zabal-za-

balik, paisaiari begira aritu da, zakurren zaunka, as-toen arrantza eta txorien kantuek lagun dituela.

**Nondik datorkizu sorkuntzarako grina?**

Nire aitak beti izan du artearekiko afizioa. Berak ere akuarelak pintatzen zituen eta gogoan daukat nola



joaten ginen berarekin Donostiatik Pasai Donibanera eta jolasean ibiltzen ginela aitak paisaiak pintatzen zituen bitartean. Erakusketak ikustera ere eramaten gintuen eta pentsatzen dut harra orduan sortuko zitzaidala. Gaztetxoa nintzela pintatzen ikastera eraman ninduten Jesus Gallegorengana.

### **Ikasketak aukeratu behar eta zurgintza aukeratu zenuen, ordea. Zergatik?**

Nire aitona arotza izan zen eta banuen egurra nola lantzen den jakiteko gogoia. Batxilergo ikasketak amaitu eta lanbide heziketan eman nuen izena zurgintza ikasteko. Nik buruan banerabilen artearekiko eta eskulturarekiko gogoia, baina gero eskolan irakatsi zigutena ofizio bat zen. Aroztegi batean lan egiten ere saiatu nintzen, baina garai hartan ez zen ohikoa emakume bat horrelako lanetan ikustea. Beraz,

nik nire bideari segi nion eta berehala heldu nien oihalei. Formakuntza prozesu baten ondoren, neroni hasi nintzen klaseak ematen, besteak beste, Errenterriako Xenpelar gunean. Gehienbat tapizak landu izan ditut eta gero *patchwork* bezalako teknikak.

### **Eta zergatik oihalgintzaren inguruko interes hori?**

Nire ama eta izeba bat jostun bezala ibiliak ziren. Txikitatik ibili izan naiz oihal eta margo artean eta pentsatzen dut horrek eragina izango zuela nire erabakian. Oihal oso handiak egin izan ditut, tapizak. Txatalak aukeratu, tindatu, serigrafiatu eta josi egin izan ditut.

Garai hartako gure bizimoduarekin lotzen ditut lan horiek. Nafarroako Leazkuen etxe bat erosi genuen eta hemendik hara, handik hona, nomaden antzera ibiltzen ginen alde batetik bestera, ia maletak desegiteko astirik gabe. Iristen ginen tokira iristen ginela nik etxean bezala sentitu nahi nuen eta oihalak ziren horretarako modua. Bilduta eraman, momentu batean zabaldu, eta oihal horietan zegoen nire mundu osoa.

### **Alemanian Koldobika Jauregik eta biok egin zenuen egonaldian egin zenuen topo bitxigintzarekin. Zertaz jabetu zinen?**

Bost urte eman genituen joan-etorrian eta orduan aurkitu nuen autore bitxigintza deitzen zaiona. Ordua arte ezagutzen nuena hemengo betiko bitxigintza zen eta ez zitzaidan asko interesatzen, ez zitzaidan iruditzen sorkuntzarako bide ematen zuenik. Alderantziz, Alemanian ezagutu nituen bitxi txiki haietan artelanak ikusten nituen, eskulturen gisakoak, espazio batean kokatu beharrean gorputzetan jartzeko eginak zirenak. Alde horretatik bitxigintza bada lan pertsonalagoa, eta eskulturaren konnotazio berdinak ikusten dizkiot, artelan batean bezala pieza bakoitza diskurtso baten bueltan eraikia dago. Tamaina txikikoa izateak eta materialen erabilerraztasunak harrapatu egin ninduen bere garaian eta ordutik eroso mugitzen naiz langintza honetan.

### **Bost urteko egonaldia izan zen Alemanian. Zer moduzko esperientzia izan zen zuretzat?**

Primerakoa. Nire bikotekideari -Koldobika Jauregi-



Elena Caraville Ordoñanak bere bitxiak erakusgai eta salgai ditu Aikizako Ur Mara museoa. J.M.



Caravallijek Ur Mararako estudioko ateak zabaldu dizkio 'Ataria'-ri. J.M.

Düsseldorf artea eta natura lotzen zituen proiektu batean parte hartzeko aukera eman zioten Insel Hombrich Museumen. Ni ere berarekin joan nintzen eta egitasmo experimental hori bertatik bertara eza-gutzeko aukera izan nuen. Koldobikari Zabalaga beka eman zioten eta Txillidak berak jarri zuen harremanetan Karl Henrich Müller mezenasarekin. Harekin elkarrizketatu ginen eta proiektuan parte hartzeko baiezkoa eman zigun. Hasiera batean sei hilabetetarako gindoazen, baina gerora nahi adina denbora geratzeko aukera eman ziguten. Jende askorekin izan

«Alemanian ezagutu nituen bitxi txiki haietan artelanak ikusten nituen, eskulturen gisakoak»

genuen hartu-eman, Müllerrek diziplina anitzetako artistak bildu zituelako proiektuan, poetak, zientzialariak, pintoreak, eskultoreak... Sortzaileen artean giro oso interesgarria sortu zen eta nik bertatik bertara bizi izan nuen hori.

**Oihalgintzan jardun zenuen bitartean zure lanak erakusteko aukerarik izan al zenuen?**

Bai, besteak beste, Tolosako Aranburu jauregian erakutsi nituen nire lanak. Hasieran Alemaniako egonaldia urte erdikoa izan behar zuenez, hemendik ez nuen beharrezko materiala eraman, ez bastidorerik ez ezer. Han nengoela Herbereetara joan nintzen, oihalak erosi eta bigarren eskuko merkatu batean josteko makina bat eskuratu nuen, oso merke. Lan asko egin nuen han nengoela, eta besteak beste, Dornstiaiko Ekain arte galerian erakutsi nituen oihalak, Koldobikarekin arte lanekin erakusketa partekatuta.

Agatha Ruiz de la Pradarekin lan egiteko aukera ere sortu zitzaidan. Alemanian geundela Koldobikak erakusketa garrantzitsu batean hartu zuen parte Kazslauko Wurth museoan. Erakusketa hartan, Txillidaren obran oinarritutako jantzi batzuk aurkeztu zituen Ruiz de la Pradak eta orduan ezagutu genuen elkar. Harremana sortu zen bion artean eta erakusketa bat antolatu genuen elkarrekin Madrilan, nik nire oihalekin eta berak bere jantziekin.


**Euskal Herrira itzuli eta bitxigintzan buru-belarri murgiltzea erabaki zenuen.**

Ez zuzenean. Alemanian ezagututako bitxigintza molde horrek arrastoa utzi zuen niregan, eta modu ez oso kontzientean, bitxiaren diseinuak marrazten nituen paperean, gehiagora jo gabe. Buruan bueltaka zebilkidan

zerbait zen, baina nik nire oihalekin eta serigrafiekin jarraitzen nuen. 2002an Gerezi alaba jaio zitzaigun eta ondoren eman nuen izena Easo Politeknikoan bitxigintzako erdi mailako graduan. Lehenengo promozioa izan zen gurea eta oso irakasle onak izan genituen. Ikasleen artean gehienak adin batetik aurrerakoak ginen, asko artisauak, euren teknika hobetu nahian izena eman zutenak. Ikaskideen artean harreman polita egin genuen eta bitxigintzan jarduteko enpresa bat sortzeko proiektua landu genuen hiru lagun artean. Gero, ordea, 2008ko krisi ekonomikoa etorri zen eta bertan behera geratu zen asmoa. Norbera bere kabuz aritzeko erabakia hartu genuen eta nik hemen Ur Maran jarri nuen estudioa eta denda.

### **Non topatzen duzu bitxigintzaren sormenerako abiapuntua?**

Niretzat eskultura txikiak egitea bezala da bitxiak sortzea. Artelan bat sortzen duzunean espazioa iza-



ten duzu buruan eta bitxigintzarekin, berriz, gorpuzta. Niri gustatuko litzaidake janzten duen pertsonak bitxi hori sentitzea bere identitatearen parte, amuleto gisa uler dezala, ukigarria den zerbait bezala. Bitxiak jantzi egiten zaitu eta agerrarazten zaitu zuk mundura azaldu nahi duzun bezala.

**Iaz sortu zenuen 'Sua' bilduma, itxialdi betean geundela.**

Bai. Naturarekin harreman berezia dut eta niretzat inspiragarria dira elementu ezberdinak. Naturako forma horiek nire gorputzetik pasa eta interpretatu egiten ditut, pieza horien bitartez hainbat gairi buruz hitz egiten dut. Suarekin ere igualtsu pasa zitzaidan. Sugarretatik hasi, txinpartara pasa, sugarra sortzeraino... suak berak har ditzakeen forma horiek jarri nituen lanaren abiapuntu gisa. Sinbolikoki etxea ere adierazten du suak eta lan hauetako gehienak konfinamendu garaian sortu nituen, etxean sartuta geundela. Hitzik erabili gabe, pieza hauen bitartez kontatu nahi nituen nire pentsamendu horiek. Bizi genuen beldur giro horretan, Ray Bradburyren *Fahrenheit 451* obra etorri zitzaidan gogora. Ikusten nuen osasun segurtasunagatik ari ginela agindu oso zorrotzak betetzen baina gero azpiratu nahi gintuen botere baten isla ere ikusten nuen. Ideia horiek guztiak buruan nahasian neuzkala sortu nituen bitxiak, eta baita, aspaldiko partez, hainbat oihal ere. Iazko ekainean muntatu genuen erakusketa Donostiako Ekain arte galerian eta Koldobikaren hainbat koadro ere jarri genituen ikusgai.

**Non saltzen dituzu zure bitxiak?**

Hemen bertan Ur Maran dugun dendan jartzen ditut salgai. Ez naiz artisau azoketara joaten, nireak pieza bakanak direlako eta hortaz ohiko bitxiak baino prezio garestiagoa izaten dutelako. Hala ere, eguberrietan Donostiako eta Ziburuko arte galeriek egiten di-

«Naturarekin harreman berezia dut eta niretzat inspiragarria dira elementu ezberdinak»

tuzten topaketetan nire lanak saldu izan ditut. Bildumak sortzen ditut normalean, baina enkarguz ere egiten ditut lanak. Gehienbat belarritakoak, lepokoak eta paparrekoak egiten ditut, eta gutxiago, berriz, eraztunak.

**Zehaztasun handiz jardun behar izaten duzu. Pazientzia handia eskatzen al du?**

Bai. Hori landu beharreko gauza bat da eta denborarekin ikasi egiten duzu. Horrelako pieza txikietan soldatze lanak, adibidez, kontu handiarekin egin behar dira, zehaztasun handiarekin. Prozesua, dena den, oso polita da. Sua oso presente dago eta alkimia moduko zerbait da. Nik zilarra, urrea eta harribitxiak erabiltzen ditut. Ahal dela, zilarra eta urrea birziklatuak, eta korala, dagoeneko, ez dut erosten. Uste dut naturarekiko harremanak birpentsatu egin behar ditugula. Oreka galtzen ari garela iruditzen zait. Ingurunea zaindu behar dugu, inguruneak gu zaindu gaitzan.

**Zerbait presente badago Ur Mara museoan, natura da. Koldobika eta bion proiektua da. Zein esanahi du zuretzat?**

Gure proiektua da, urteetan landu duguna. 2000. urte inguruan etorri ginen hona bizitzera baina museoan 2012an zabaldu genuen. Artea, natura, filosofia eta etnografia biltzen dituen toki bat da Ur Mara. Gaur egun biok kudeatzen dugu espazio hau eta bion artean erabakitzen dugu zer norabide hartuko duen museoak. Urtero jasotzen dugu diru laguntza publikoa, bildumak egokitu eta erakusketak antolatzeko, eta hori dena kudeatzeak lan handia ematen du. Bisita gidatuak antolatzen ditugu gure proiektua azaltzeko eta horiek ere antolatu egin behar izaten dira. Bulego lan handia egitea tokatzen zait.

**Koldobikaren neurri handiko eskulturek, basoak berak, Thoreau espazioak, ekitaldiak egiteko negu-**

**tegiak... Espazio askok osatzen dute Ur Mara. Zerk lotzen ditu bata bestearekin?**

Naturak, arteak eta gizakiak. Hiruko horrek laburbiltzen du proiektuaren diskurtsoa. Gure mundu ikuskera eza-gutzera emateko modu bat da, gustatzen zaigun hori hemendik kontatzeko modua. Baten batek esango du ikuspegi *naif* xamarra dela, baina horixe da gure bizimodua.

**Zaila al da kultur proiektu hau mapan kokatzea?**

Ez dakit esaten. Guk argi geneukan ez genuela arrakastaz ito nahi. Pixkanaka joan gara gauzak egiten,

«Museoa 2000.ean zabaldu genuen. Artea, natura, filosofia eta etnografia biltzen dituen toki bat da Ur Mara»

entseatuz, batzuetan asmatuz eta besteetan erratuz, baina batez ere presarik gabe. *Slow* mugimenduari jarraitzen diogu guk. Ez dugu jende asko behar, oraingo kopuruarekin konformatzen gara. Aldi berean, horrelako toki batentzat ez da jasangarria astebururo jendetza jasotzea, natura zaindu egin

behar baitugu. Etortzen den horrek nola gozatzen duen ikustearekin nahikoa dugu. Hori da gure neurria. Partekatzeko toki bat da, ez da negozio bat, gure munduarekiko ikusmolde hau besteekin konpartitzeko modua da Ur Mara.



**‘Slow’ mugimendu horrekin bat al datoz sare sozialak, adibidez?**

Nik ez ditut kontraesanean ikusten. Guk gure sare sozialak tarteka elikatzen ditugu. Hor ere poliki egiten ditugu gauzak eta pentsatzen dut jaso ere horrela jaso daitezkeela, tarteka, egun guztian horri begira egon gabe. Iruditzen zait norberak egiten dituen gauzak zabaltzeko oso tresna baliagarriak direla eta sare sozialak ez zaizkit bereziki oldarkorrak iruditzen.

**Proiektu honen atzean talde zabalago bat ere badago, ezta?**

Bai. Guk Ur Mara proiektuaren aholkulari kontsideratzen ditugu. Elkarrekin amesten dugu. Juan Kruz Igerabide, Antonio Casado de Rocha, Susana Cencillo, Asun Landa... beti daude prest gurekin gauzak egiteko.

**Alkizako herrian ondo txertatuta dago museoa?**

Bai. Ur Mara sortu baino lehen herrian Itxurain taldean ibili ginen eta etnografiako hainbat proiektu garatu genituen. Garo metak, txarribodak, sagardoa, txondorra... gauza asko egin genituen.

Gerora etorri dira beste proiektu batzuk, Fagus Alkiza edota Sormenaren Kabia bezalakoak. Naturalki etorri dira horiek denak, herrian bazegoelako giro bat, muntatutako diskurtso bat. Haria jarraituz etorri dira beste egitasmoak.

**Sormenaren Kabia egonaldia da azkenekoa. Zu zeu arituko zara tutore.**

Bai. Koldobika eta biak ariko gara. Zientzia, artea eta naturaren inguruan aritzeko egonaldiak antolatzea gauza berritzailea da. Tailerrak emango dira hemen eta zalantza teknikoak argitzeko egongo gara gu hemen.

**Telmo Esnalen ‘Dantza’ filmeko zuzendari artistiko**

«Pixkana joan gara,entseatuz, batzuetan asmatuz eta besteetan erratuz, baina presarik gabe»

**koa izan zinen. Zein izan zen zure egitekoa?**

Aspaldikoa zen filma egiteko asmoa eta Koldobika Telmo Esnalengana proposamenarekin joan zitzaionean, dagoeneko buruan zeukan pelikulan islatzen den unibertso estetiko hori. Unibertso hori, ordea, gauzatu egin behar da eta errealitate



bihurtu. Talde bat osatu zen zeregin horretarako eta ni zuzendari artistiko bezala aritu nintzen. Atrezzoak, jantziak, bitxiak eta bestelako elementuak sortzea izan zen gure egitekoa. Pozik gaude emaitzarekin.





Bitxigintzan aritzeaz gain,  
Koldobika Jauregiren batera  
Ur Mara museoa kudeatzen  
du. **J.M.**

### **Egun hauetan, filmeko hainbat elementu biltzen dituen erakusketa Ur Mara museoa bertan duzue ikusgai.**

Bai. Aurretik Zarautzen eta Andoainen ikusgai izan dira *Dantza* pelikulako jantziak, bitxiak eta bestelako elementuak. Aurreko maiatzaren 23an erakusketa zabaltzeko ekitaldia egin genuen eta datozen bizpahiru asteetan ikusgai izango da Ur Marako negutegian.

### **Sortzaile eta emakume bezala nola ikusten duzu zeure burua?**

Gauzak hobetzerako bidean doazela pentsatu nahi dut. Ahaztuta eta gutxietsita egon dira emakume

sortzaile asko. Esate baterako, Le Corbusierrenak zirelakoan pasatu diren lanetako asko, gerora jakin da emakumeak egindakoak direla. Orain azaltzen ari dira gauza horiek. Iruditzen zait aurrerapauso bat ematen ari dela ikusgaitasunean. Gure alabak arte ederrak ikasten ditu eta iruditzen zait sortzaile bezala guk baino aukera gehiago izango duela aurrera egiteko.

### **Bidean emakume izateagatik oztopoak topatu izan dituzula esango zenuke?**

Pentsatzen dut egongo zirela oztopo batzuk, baina nik nire bideari jarraitu diot. Ni pertsona baikorra naiz. Bidean banoa eta hesia parez pare topatzen badut, ez dit axola, buelta erdia eman eta bide luzeago bat hartuko dut iritsi nahi dudan tokira iristeko. Ez naiz horrelako gauzeekin tratatzen, eta batez ere, ez naiz zaputzen. Agian oso bizi filosofia tontoa da, baina bizitza bere zailtasun eta guzti onartu beharra dagoela iruditzen zait. Askotan pentsatzen dut: zuhaitz batetik hazi bat erori eta indartsu ernetzen dela belardi batean eta hazi horren berdin-berdina den beste batek, aldiz, harri tartera jausi eta askoz ere zailagoa izaten duela ernetzen. Errealitate hori natura ere bada. Oztopoak ere bizitzaren parte dira. Gu ez gara animaliak edo zuhaitzak baino gehiago, ez gaude burbuila batean gizakiak izateagatik eta gauzak guri ere gertatzen zaizkigu. Ez dut esaten bidea urratu behar ez dugunik, baina bide horretan topatuko ditugun oztopoak behintzat ez ditzagun eraso bezala hartu, naturala ere badelako eta bizitzak ere bada-kartzalako horrelakoak. Natura gara, eta hostoa adaxkan jaio eta udazkenean erortzen den bezala jaio eta hilko gara gu egunen batean.

# Irten bidera Julen eta kideen askatasunagatik



**ION MINTEGIAGA**  
**'MINDE'**  
**LANGILEA**

**U**ztailaren 12an, zortzi euskaldun epaituko dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalean. Tartean Julen Zelarain billabonatarra. Presoen alde jarduteagatik, erne! Preso zegoen aldia.

Auziaren zioa ulertzeko 2010era itzuli behar da: ezker abertzalea borroka armatuaren zikloa atzean uzteko erabakia eztabaidatzen ari zen batzar ezberdinetan;

presoen iritziak berebiziko garrantzia zeukan. Hori baldintzatu nahi zen.

Geroz ere, euskal presoen aldeko jarduna jazarria izan da: 2013an Herrira mugimendua legez kanporatu zuten eta hamazortzi lagun atxilotu. 2014an EPPKko zortzi bitartekari espetxeratu zituzten. 2015ko urtarrilean presoen abokatuak eta elkartasun sarekoak harrapatu zituzten; martxoan Etxerat eta Jaiki Hadi elkarteetako bina kide. 2019an 11/13 makroepaiketa burutu zen. 2020an Kalera dinamikako hainbat kide atxilotu zituzten...

Zergatik tamainako erra? Akaso preso horiek, iragana ez ezik, oraina eta geroa ere badirelako.

Halaxe pentsatu zuen Ezker Abertzaleak: «Behin bake eskenatokia egonkortuta, preso eta iheslariak etxera itzuliko dituk epe motz/ertainean; orduan orube demokratiko bat erdietsiko diagu indarrak metatuz; azkenik erabakitze eskubidea gauzatu eta askatasunerako bidea urratuko diagu».

Estatua bestelako ondorioetara iritsiko zen kontrara: «Lehenbiziko asmoe-tan zangotrabatzen badizkiagu, lokatzetan itoko dituk».

Hala, espetxe politika, orainsu arte, geldirik mantendu dute. Zenbait alda-gaik topo egin duten arte: Euskal Herrian gehiengo zabalaren eskakizuna izan eta mobilizazio iraunkorren bitartez eustea; presoek ildo berregokitu, eragindako minarekin enpatia izan eta bide legala ere profitatzea; Espainiako Estatuan ezker aldeko gobernuaren osaketa; indar abertzaleen bozkak Madrilen erabakigarriak izatea. Pieza guztiak dira garrantzitsuak, baina ezinbestekoa, urte guzti hauetan, boluntario lanetan aritu diren milaka lagunen lan eskerga izan da, errepresio gordinez baldintzatua.

13/13 sumarioko epaiketan ere herri xeheak atera beharko ditu babak eltzetik. Azpeitian txipiroi tinta botatzen dabilenak, ertzainak neurria galduta grebalarrien edo gazteen aurka jaurtitzen dituenak, eta espetxe eskumenak mar-txan jarri aurretan, balizko presoen ongi etorrien aferarekin pausua markatu nahian dabilenak, nekez luzatuko du eskua.

Bidera irten beharrean gaude, Julen eta gainontzeko kideei irtenbidea bilat-zeko. Enegarrenez.

**Bidera irten  
barrean  
gaude,  
Julen eta  
gainontzeko  
kideei  
irtenbidea  
bilatzeko.  
Enegarrenez.**



**OLATZ  
PEÑAGARIKANO**

# Reset

**E**z nizun sinetsi kontatu zenidanean. Hain zenuen argi ordea, nire babes osoa adierazi bainizun. Plastikozko hitzak, zure begirada itzal ez zedin. Askotan egiten dugu, zergatik harritu orain.

exijitu. Badakizulako denboraz kanpo eta epelkeriekin erantzuten dutena, elkarri pilota pasaz, uneoro handiagoa den pilota. Horregatik zure bizimodu osoa maleta eskas batean sartu eta han abiatu zinen kementsu, konbentzimendu osoz horixe zela barruak eskatzen zizuna.

Arima karitatetsu bihurtu zara geroztik; ikasi nizun ez zenuela errukirik nahi, ezpada ekintzak, eta horretantxe diharduzu harrezkero, jardunez

**Nire erara lagunduko nizula agindu nizun,  
hemengo erosotasun eta fribolitatetik,  
kontu korronte baten galbahetik.**

Zeure burua aurkitu behar omen zenuen, mundura zertarako sortu zinen asmatu. Berrabiarazi egin behar zenuela, deseraiki eta berriz eraiki. Reset. Ez zenidan arrazoi berezirik eman, ezta behar ere. Izan ere, gero eta zailagoa da sistema gupidagabe honetan sinestea: mundu laurdena gerran, beste laurdena goseak akabatzen, eta hori gutxi ez eta zientoka eta milaka itsasoak irentsita. Bien bitartean guk geuk begi kliskarik ere ez. Naturala horixe balitz bezala. Baina zu ez zinen mirariaren zain geratu. Ez zinen nekatu agintariak larrutzen, ez zenien konponbiderik

lanean. Lantzean behin gogo onez hartzen dut zure berri, nahiz eta kontaktzen didazun miseriak atximur egiten didan. Eta pozten naiz ez naizelako erabat anesthesiatu, oraindik geratzen zaidalako enpatia eta kontzientzia, oraindik sentitzen dudalako samina eta ezinegona, dosi txikian bada ere.

Nire erara lagunduko nizula agindu nizun, hemengo erosotasun eta fribolitatetik, kontu korronte baten galbahetik. Eta hala jarraituko dut, gutxi batzuek egin dezazuen askoz gehiagok egin beharko genukeena.




**AMAIA AGIRRE  
ARRASTOA**  
HARITUZ-EKO KIDEA

## Zer sendatuak

**Doinua** Juana Bixenta Olabe

Astrazeneca ta orain Pfizer  
zuk hartzea zeneukan eta nik zer?  
Ahoz aldatzen da Corrugados  
atera gezur bat, korri! Ados!  
Sena altuak  
euskara hil nahi du senatuak...  
Hemen badira zer sendatuak.





SAIO LIBREA

## (H)ari naizela

### Asteazkenean

20:00etan, Imanol Artola *felixen* irratsaioa, bertsolaritzari buruz eskualdeko ikuspegitik.



PODCAST-A

## Amalurra

### Asteartean

15:00etan ingurugiroari eta ama lurrari buruzko irratsaioa Imanol Garcia Landa kazetariarekin.



PODCAST-A

## Desafioa

### Herri kirolak

Joxe Anjel Sarasola asteasurrarekin herri kirol munduko albisteen errepasoa, asteazkenean.



MAGAZINA

## Pasahitza

### Astelehenetik ostiralera

09:00etatik 13:00etara eskualdeko aktualitateari buruzko saioa ATARIA IRRATIAN: Protagonistak, zuzenekoak, kantu eskaintzak...



Saio guztiak hemen, [ataria.eus/irratia-n-entzungai](http://ataria.eus/irratia-n-entzungai)

### OSTIRALA

#### PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa, helduen solasaldia...

#### PODCAST-A

15:00. *Kulturari Begira* Irati Saizarren eskutik. Asteburuko agenda.

#### ZEBRABIDEA

16:00. Magazina.

#### MESTIBULL

21:00. Antxeta Irratiko

DJ Bull-en musikari buruzko irratsaioa.

### LARUNBATA

#### TRIKITIA

08:00. Trikiti musika goizean zehar.

#### LETREN ERREPUBLIKA

14:00. Literaturari buruzko podcast-a, Jon Miranda kazetariaren eskutik.

#### MESTIBULL

21:00. Antxeta Irratiko DJ Bull-en musikari buruzko irratsaioa.

### IGANDEA

#### TRIKITIA

08:00. Trikiti musika.

#### HARI NAIZELA

14:00. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola *felixekin*.

#### MUSIKASI

20:00. Musika klasikoaren tarteak.

### ASTELEHENA

#### PASAHITZA

09:00-13:00. Eguraldia, agenda, zuzeneko kone-

xioak, kantu eskaintzak, iritziaren tarteak, eguneko gaiak eta asteburuko albistek.

#### POSTALAK

15:00. Bidaiei buruzko saioa.

#### ZEBRABIDEA

16:00-18:00. Arrosa sarearen magazina. Euskal Herriko aktualitateak.

#### MAILU TA AKUILU

20:00. Ekaitz Aramendiren musikari buruzko saioa.

# AGENDA

## OSTIRALA EKAINAK 4

### ADUNA HITZALDIA

**18:00.** *Ekologista naiz baina...* hitzaldia. Gure kontsumoa jasangarriagoa izateko bide-orria zehaztu du Gorka Egiak, kultur aretoan.

### AMASA-VILLABONA XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

**10:00.** *Soinu artxiboak: egitasmo eta esperientziak.* Hizlariak: Iñigo Ceberio eta Irati Etxezabal (Euskadi Irratiko fonoteka), Adolfo Arejita eta Amaia Jauregizar (Euskaltzaindia), Jon Eskisabel (Badok), Xabier Erkizia (Soinu artxiboak sortzailearen begiradatik) eta Marie Bidart-Hirigoyen (Soinu artxiboetako sarbidea ikertzailearentzat). Subijana etxean. Doan. Izen-ematea: [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus).

### ANOETA TAILER ETA IKUSKIZUNAK

Laser Tag (DBHko ikasleentzat).  
**10:30-13:30.** Zirko tailerra.  
**10:30-13:30.** Baratza tailerra.  
**18:00.** Mikra zirko ikuskizuna, Ikastolako patioan. Gonbidapenak liburutegian.

### ASTEASU EKITALDIA

**19:00.** Udaletxeko ikus-entzuzko gelan txirrindularitzaren inguruko ekitaldia egingo dute. Bertan parte hartuko dute *Giroa nola irabazi idi odola edanez* liburua idatzi duen Ander Izagirrek eta Xabier Usabiaga esatariak.

### IRURA MUSIKA ZUZENEAN

**18:00.** DJ Lambretta, Errekaldeko tabernako terrazan.



Asteasun Xiri-Miri kultur mahai berria aurkeztu dute. Ekitaldiak iragarri dituzte udarako eta ostiral honetan bertan abiatuko dira; oraingoan txirrindularitza protagonista izanik, Ander Izagirre eta Xabier Usabiagarekin.

### TOLOSA TAILERRAK

**16:00.** *Ikasi zaintzeko.* Mendeko pertsoneri gizarte erakundeetan Gizarte eta Osasun-arreta emateko Profesionaltasun Ziurtagiriaren inguruko informazio eta aholkularitza saioak. Kultur etxean.

**16:00.** Haurtzaroko sexu-abusuei buruzko ikuspegiak, Susanna Mingell. *Palabras dislocadas* haurtzaroko sexu-abusuak salatzen eta ikustarazteko proiektua da. Plaza mugatuak. Izen-emateko: 943 67 03 83 eta [berdintasuna@tolosa.eus](mailto:berdintasuna@tolosa.eus). Kultur etxean.

### ANTZERKIA

**19:00.** Txalo produkzioak konpainiaren *Losers* antzezlan, Leidorren.

### ERAKUSKETA

2020-2021 ikasturteko erakusketa, Blok arte eskola. Topic-eko Anbiguan.

## LARUNBATA EKAINAK 5

### AMASA-VILLABONA BILKETA HERRIKOIA

Elkartasun sarea deituta, oinarriko produktuen bilketa herrikoia egingo da.

### ANOETA MENDI MARTXA

**08:30.** Anoetako kirol taldeak antolatuta udalarekin elkarlanean, mendi martxa. Ibilbide luzeko parte hartzaileak 08:30ean plaza-tik abiatuko dira eta ibilbide motzeko parte hartzaileak 09:30ean plaza-tik.

### BERTSO SAIOA

**18:30.** Bertso saioa Miren Artetxe, Oihana Iguaran, Ane Zuazubiskar, Unai Agirre, Xabat Ilarregi eta Unai Mendizabalekin. Gonbidapenak liburutegian eskuratu daitezke. Abraham Olano kiroldegian.

## AGENDA

### BERROBI ZUMBA

18:00. IKK-ek antolatuta, zumba klasea, frontoian.

### LIZARTZA ERROMERI EGUNA

12:00. Otsolar dantza taldea.  
19:00. Iñaki Dieguez. Akustik trio. Ekitaldietarako izen-emateak udaletxean. Emanaldiak herriko plazan izango dira.

### TOLOSA TXAPELKETA

11:30. Euskadiko Uztai Txapelketa, zezen plazan.  
**Jarraian.** Txapeldunen uztai erakusketa. Joanes Balenciaga, Ander Lizarralde. Marques de Saka ganadutegia. Sarrerak: 7 euro.  
17:30. Euskadiko bost ganaduzaleen arteko lehia oztopoekin. Bergarako zezenak, Ibiri, Leizarran, Marques de Saka eta Ruso zezenak. Jarraian. June Urain errektoria. Sarrerak: 7 euro.

### SORMENETIK

12:00. Kai Nakai izango da Sormenetik saioko hurrengo gonbidatua. Oizeder Mayo kazetari zizurkildarrak elkarrizketatuko du musikari gasteiztarra. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, TAK arraun elkartean.

### KONTZERTUAK

18:00. Udal musika bandaren kontzertua, Zerkausian.  
19:00. Nuevo Catecismo Catolico taldearen kontzertua. Sarrerak 8 euroko kostua izango du, Bonberenean.

## IGANDEA EKAINAK 6

### ANOETA IKUSKIZUN MUSIKALA

11:30. Ametsen urtebetetzea ikuskizun musikala. Gonbidapenak Gaztelekuan eskuratu daitezke. Ikastolako patioan eskainiko dute.

### ASTEASU BISITA GIDATUA

11:00. Muskerraren Bidean bisita gidatua. Izena emateak aurrez egin beharko dira 943 69 19 07 telefonoan edo [udala@asteasu.eus](mailto:udala@asteasu.eus) helbidean. Herriko plazatik abiatuko dira.

### IBARRA ERRONKA

08:00. *Erronka, 6 ordu azpitik, Arria V. 10 aldiz 100 kg zilindro zaharra, mendi maratokia, 43 km (Tolosaldeko 3 tontorrek). 5.600 m desnibel metatua eta aizkora, 10 kanaerdiko. Emeterio Arrese plazan.*

### LIZARTZA OMENALDIA

XXIII. urteurrena. Ina Zeberio.  
09:00. Mendi martxa Axurdariora.  
13:00. Ekitaldia, monolitoaren aurrean.

### TOLOSA TOLOSATZEN

**Goiz pasa.** Ekainaren 5ean ingurumenaren nazioarteko eguna ospatu denez, ingurumen astearren barruan, txangoa antolatu dute: San Esteban auzoa - Zubi Berria (Dama berdea iturria) - San Esteban auzoa. Lurraldea ezagutzea izango da helburua.

### KONTZERTUA

12:00. Serge akustikoan entzuteko aukera, Bonberenean. Sarrerak 8 euroko kostua izango du.

### ZIZURKIL PALA TXAPELKETA

11:00. Infenuaren alde pala txapelketa ez-mistoa. Finalak, Intxaur pilotalekuan.

**OHARRA.** Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

## ZINEMA



### POLIAMOR PARA PRINCIPIANTES

Larunbata, igandea eta astelehena (19:30).

**Amasa-Villabona, Gurea.**

Larunbata, igandea eta astelehena (19:00).

**Tolosa, Leidor.**



### ASTERIX, EDABE MAGIKOAREN

### SEKRETUA

Igandea (12:00).

**Amasa-Villabona, Gurea.**



### SUHARRA

Larunbata (16:00).

**Tolosa, Leidor.**

# «Gure kultura berritzeko apustua egin behar dugu»



## ASIER ORUESAGASTI

1986. DONOSTIA

**G**oenkalen ezagutu genuen gehienok, baina gerora ere bere aurpegia maiz ikusi dugu pantaila txiki nahiz handian. *Go!azen* eta *Altsasu* telesailetan parte hartu du eta *Skizo*, *Hodeiak margotzeko makina* eta *Akelarre* filmetan ere lan egin du, besteak beste. Antzerkian ere aritua da, *Butterfly effect (Gizakeriaren eboluzioa)* antzezlanean, adibidez.



## GARAZI URKOLA

1998. AMASA-VILLABONA

**D**antzerkiko antzerki-ikasketak amaitzean dago, baina dagoeneko pantaila handian eta Netflixen bere lanaz gozatzeko aukera izan dugu *Akelarre* filmean. Ikasketa profesionalak egin aurretik Andoainen ibili zen klaseak jasotzen. Antzerkian *Uda gau bateko bidegurutzea* egin berri du eta orkestra sinfonikoarekin kolaborazio lan bat ere egin du, besteak beste.





## Hodei Arrastoa

**G**aur *Zazpigarren ilaran* bi aktore gipuzkoar ditugu, biak ala biak Netflix plataformari esker euskal zinema mundura eraman dute, *Akelarre* filmean eginiko lanari esker.

### Zein izan zen zuen lehenengo lan profesionala?

**Garazi Urkola.** Duela hiru urte inguru Arriaga antzokirako proiektu batean hartu ninduten: *Adaptación contemporánea de los libros IV y V de los madrigales de Monteverdi*. Zuzendari ingeles batekin egin genuen lan, bitxia izan zen.

**Asier Oruesagasti.** Garai horretan Dantzertin zenbiltzan ikasten?

**G.U.** Bai, karrera hasieran izan zen. Duela gutxi Dantzertin bertan Mireia Gabilondo izan dut zuzendari.

**A.O.** Ni 10-12 urte nituela figurazio lanetan aritu nintzen, baina benetako nire lehen lan profesionala *Ander eta*

*konpainia* telesailan Isidoro Fernandezekin semearen pertsonaia izan zen.

### Anekdotak mordoak izango dituzue.

**A.O.** Ditudan anekdota potoloenak lanetik kanpo gertatutakoak dira. Behin, *Goenkale EITBn* zegoen garaian, kaletik oinez nindoala emakume bat ondoan gelditu zitzaidan niri begira. Nik ezagutu egin ninduela pentsatu nuen eta bat batean «zu zer!?» galde-

tu zidan haserre. «Kaletik ikusi eta agurtu ez!», gehitu zuen. Nik barkamena eskatu eta bera ezagutzen ez nuela esan nion eta berak berriz «nik zu bai, ordea!» erantzun zidan. [Barrreak].

**A.O.** Beste behin zerbait okerragoa gertatu zitzaidan. Amona hil zitzaidan eta beilatokian geunden azken meza ematen. Hilketza errausketa-la-

«'EITB'k oso laguntza eskasa ematen du eta proiektuak aurrera eramateko dirua behar da»

**ASIER ORUESAGASTI**



bera eraman behar zuen pertsonak ezagutu egin ninduen eta «Ui! Kaixo, zer moduz?» galdetu zidan alaiki.

**G.U.** Nik behin emanaldi batean esku-muturra bihurritu nuen. Lagun batekin eskutik helduta biraka genbiltzan eta askatzean gaizki erori nintzen. Mina hartu arren, aurrera jarraitu nuen.

**Nolakoa da euskal fikzioaren egoera?**

«Euskal Herrian euskaraz egiten den euskal zinemaren kantitatea oso baxua da»

**GARAZI URKOLA**

**A.O.** Euskal profesionalak gero eta balioztatuago daude estatu mailan, teknikari asko euskaldunak izan ohi dira eta baita aktoreak ere. Kalitate handia dago. Euskal zinema barruan gertatzen ari dena zera da, gero eta gehiago bilatzen direla dirua jarriko duten espainiar ekoizleak. *El hoyo* filma adibide bat da. *EITB*k oso laguntza eskasa ematen du eta proiektuak aurrera eramateko dirua behar da. Laurogeigarren hamarkadako aurrekontuak gaur egungoen berdinak dira eta hori eramanezina da. Bizitza bera asko garestitu da eta ondorioz inbertsioa ere handiagoa izan behar du.

**G.U.** Guztiz ados nago. Euskal produkzioak oso onak izaten ari direla uste dut. Azkenaldian ikusten ditudan proiektu ezberdinetan euskaldunak daude, bai kameraren aurrean baita atzean ere: jantzitegian, efektu berezietan... Hala ere, esan beharra dago Euskal Herrian bertan euskaraz egiten den euskal zinemaren kantitatea oso baxua dela. Kalitatea, ordea, badago. Zinema mota polita egin daiteke kalitate horrekin. Produkzio gehiagorentzat ikuslegoa badago, euskal filmen ikuslegoa ez baita euskaldun jendea soilik. Espainian ere ikusten da gure zinema.

**A.O.** *EITB*k urtero aurrekontu bat du fikzioa egiteko eta bi aukera dituzte: bata, produkzio handi bakarra egitea; bestea, produkzio txiki asko egitea. Lehena

eskas geratzen da kantitate aldetik, bakarra delako, eta bigarrena eskas diru aldetik proiektua aurrera eraman ahal izateko. Gogoan izan behar da *EITB* ez dela kate pribatu bat... kate publikoa izanda, badirudi ez dutela haien publikoa entzuten.

**G.U.** 2020 urte bukaeran izandako apustua interesgarria izan da, harrera

ona izandako hiru telesail txiki egin dira: *Hondar ahoak*, *Alardea* eta *Altsasu*.

**A.O.** Oso ondo dago horrelako formatuen aldeko apustua ere egitea. Kontua da hiru hilabete iraun zuela *EITB*ren euskal fikzio berrien eskaintzak. Jendeak fikzioa ikusi nahi du, kalitate duin batekin eta euskaraz. Jendeak eskaintzen diozuna kontsumitzen du.

**Gazte artistok etorkizuna zaila al dugu?**

**G.U.** Formakuntza aldetik kanpora joatearen aukera beti hor dago. Hemengo produktuek hazteko aukera izan behar dutela argi dago, gure kultura eraberritze-ko apustua egin behar dugu. Ezin gara gelditu betiko dramekin eta betiko istorioekin. Eraldaketa bat egitea tokatzen zaigu.

**A.O.** Ados nago. Badirudi Euskal Herrian egiten diren produktuak Euskal Herrian bertan soilik gerta litezkeen istorioei buruz direla. Unibertsalagoak izan gaitzke... *Arriya* filma bera, zergatik bihurtu familien arteko liskar bat baserri giroko film batean? Gaur egun ere baserri inguruko fikzio asko dago: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*; *Bi anai*; *Hil kanpaiak*; *Arriya* bera... Euskal Herriko herri txiki batean daude kokatuta denak, zergatik ez gehiago zabaldu? Munduko edozein tokitan gerta litekeen serie poliziako bat egin genezake euskaraz, adibidez.

**G.U.** Hizkuntza gisa euskara hartuz beste edozein herrialdeetako produkzio bat izan litekeen zerbait sor genezake, bai. Euskal gazteok Netflix eta bestelako plataformak maiz ikusten ditugu eta bertako katalogoa oso zabala da, fikzio mota ezberdinak ditugu aukeran. Baserriak eta herri txikiak noski direla gure identifikagarri, baina aldi berean gero eta urrutiago geratzen zaizkigu. Mundua gehiago ezagutzen dugu orain.

MOTZEAN



**Pelikula bat?**

**A.O.** *La vida de Bryan* eta *The usual suspects*.

**G.U.** *La teoria del todo* eta *Tomboy*.

**Serie bat?**

**A.O.** *Invencible*.

**G.U.** *Prision Break*.

**Genero bat?**

**A.O.** Konkreturik ez.

**G.U.** Momentuan bertan gorputzak eskatzen didana.

**Aktore bat?**

**A.O.** Robert de Niro eta Meryl Streep.

**G.U.** Eneko Sagardoy, Elena Irureta, Loreto Mauleon...

# «Romeo eta Julietaren euskal bertsioa»

## Hodei Arrastoa

*Arriya* pelikula norberaren telebistan edo pantaila txikiagoan ikusteko aukera eskaintzen du *EITB* webguneko *Nahieran* atalak. Honela, pelikularen azterketa egin dute Asier Oruesagasti eta Garazi Urkola aktoreek, Hodei Arrastoarekin tertulian.

**Film berezia da, adi egon behar duzu pantailari begira.**

**Asier Oruesagasti.** Bai, denbora aldaketak daude eta batzuetan horrek harridura sor diezazuke. Donostiako Zinemaldian ikusi nuen estreinatu zenean eta zuzendariarekin unetxo bat hitz egiteko aukera izan genuen Loreto Mauleonek eta biok. Ustez filma ulertu genuela esan genion eta hark zera erantzun zigun: «Benetan? Ba azal iezadazue niri».

**Garazi Urkola** Niri ez zait iruditzen horren zaila denik filma jarraitzea, istorioa erraz ulertzen dela uste dut. Familiak norbanakoaren eremu pertsonalean duen eragina ageri da eta filmaren helburua hori azaltzea dela deritzot, istorio bat azaltzea baino.

**A.O.** Romeo eta Julietaren istoriotik ez da gehiegi aldentzen: bi familien arteko liskarrek maitaleengan duten eragina ikusten da. *Arriyan* erlazio hori kolokan jarriko duen hirugarren pertsona bat ageri da, ordea.

**G.U.** Romeo eta Julietaren euskal bertsioa.

**Emakumeen eta gizonen rola oso markatuta daude filmean.**

**A.O.** Historikoki hala izan da eta filmaren testuinguruan hala erakusten da.

**G.U.** Nik amarekin ikusi nuen pelikula

«Familiak norbanakoaren eremu pertsonalean duen eragina ageri da»

**GARAZI URKOLA**



eta tarteka, «hau horrelaxe izaten zen» esaten zuen.

**A.O.** Emakumea sukaldean eta haurrak zaintzen eta gizona tabernara joan, ahoa berotu eta baserria apustuan jarri. Esan beharra dago Iñake Irastorza aktorea beti dagoela ondo, egiten duena egiten duela.

Bere egunik txarrean ere izugarriko energia du.

**'Arriya'n idi proba ageri da, baina pilotan ere badira apustuak.**

**A.O.** Euskal kulturaren parte dela esan dezakegu...

**G.U.** Nik apustuak gauza euskaldun gisa identifikatzen ditut, baina aldi berean oso urrun geratzen zaizkit.



Asko nabari da familien arteko gatazka hori, zure familiak ematen dizkizun abizenak nor zaren esaten dizu. Non bizi zaren, baserri horrek ere asko markatuko zaitu.

**A.O.** Gaur egun badira baserriaren izenez ezagutzen ditugun pertsonak, belaunaldiz belaunaldi mantendu den etxearen izena daramatenak.

«Iñake Irastorza aktorea beti ondo dago, egiten duena egiten duela»


**ASIER ORUESAGASTI**

du den etxearen izena daramatenak.

**G.U.** Nik ere badi-tut inguruan baserriaren izena izengoiti propio gisa erabiltzen duten pertso-

nak. *Arriyan* Iban Garateren pertsonaiak, Peruk, ez dio familiari aurre egiten, Begoña Maestrek interpretatzen duen Mariak, aldiz, bai. Nahi duena egiten du, benetan sentitzen duena egiten saiatzen da, borondate pertsonala du.

**A.O.** Hori da, Mariari berdin dio familian gatazka sortzeak. Peruk ez du etxekoen kontra joan nahi.



## ARRIYA

### Zuzendaria

Alberto Gorritiberea

### Aktoreak

Iban Garate

Ramon Agirre

Iñake Irastorza

Begoña Maestre

Sara Casanovas

Kandido Uranga

Joseba Apaolaza

### Ikusgai

EITB nahieran



**IKER IBARLUZEA**  
EGURALDI ADITUA

# EGURALDIA

## OSTIRALA

Giro goibelarekin jarraituko dugu. Arratsaldearen erdi arte hodeiak nagusituko dira eta euri zaparrada dezente izango ditugu, tarteka mardulak izango direlarik, ekaitzak jotzea baztertu gabe. Egunaren azken orduetan atertzeko joera hartuko du eta ostartetxo batzuk zabalduko dira. Haizeak ipar-mendebaldetik jotzen jarraituko du eta tenperatura antzeko mantenduko da, 17-18 gradutan joaz goia.

## LARUNBATA

Giro lasaia izango dugu. Goizean hodei geruza handi xamarra izango dugu, baina ateri eutsiko dio eta giroa lasaia izango da. Gainera arratsaldean pixkanaka ostarreak gailentzen joango dira eta egunaren bigarren zatian polita izango da. Haizeak ipar, ipar-ekialdeko ukitua izango du eta ahul ibiliko da. Tenperatura igo eta balio altuenak 19-20 gradutan errendituko dira eguneko erdiko orduetan.

## IGANDEA

Giro eguzkitsu eta ederra. Egunean zehar tarteka hodeixka batzuk ikusiko ditugu, batez ere, egunaren lehen zatian, baina ez diote inolako trabarik egingo eguzkiari eta eguraldi eder eta eguzkitsu batez gozatzeko aukera izango da. Haizeak ipar ukitua izango du eta ahul ibiliko da eta tenperaturak beste koska pare bat igo eta 21-23 gradu bitartean joko du goia.

## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



#### URTE ASKOAN EKAIN!

8 urte beteko dituzu bihar. Zorionak eta muxu pilla bat!

# ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

*Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez*

## FARMAZIAK

EKAINAK 4, OSTIRALA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Eurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EKAINAK 5, LARUNBATA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Jesus Maria Etxebeste. Gernikako arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.

EKAINAK 6, IGANDEA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

EKAINAK 7, ASTELEHENA  
**AMASA-VILLABONA**

**Egunekoa.** Juana Maria Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.**

**LURDES AZPIROZ GALARZA. LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**



Sarrailegintza

KEY•LAN

Nafarroa etorb.  
13 behea. TOLOSA  
670 417 922  
943 65 0313

BERTAKOAK  
BERTATIK



ANOETAKO  
UDALA

**BASERRI BIZIAK**  
**DENDA BIZIAK**  
**HIZKUNTZA BIZIAK**  
**HERRI BIZIAK**

VITALIS

zabaldu hegoak edertasunari

**TOLOSA**

San Frantzisko 24  
943 903 664 · 645 698 533  
tolosa@vitalis.eus

**BEASAIN**

Dolare 1  
943 041 715 · 625 592 938  
beasain@vitalis.eus


vitalis.eus

 @vitalis\_beasain\_tolosa

 @VitalisBeasainTolosa



Laser  
depilazioa



Aurpegiko  
tratamenduak



Gorputz  
birmoldaketa



**SUMMER IS MÓ**

**2 mó**  
**99€**

**batzuk eguzkitakoak  
izan daitezke**

**San Frantzisko, 23**

**Tel.: 943 69 84 70**

**TOLOSA**

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)   

**MULTIÓPTICAS**